



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

2017/12/19

Batzar Nagusiek Garraio sailaren aurrekontuaren aurrean aurkeztutako zuzenketa-eske bakarria onetsi dabe, 50.000 euroko baliokoa

Bizkaiko Batzar Nagusiek Lurralde Historikoko 2018ko Aurrekontu Orokorrak eztabaidatzeko bigarren jardunaldia hasi dabe gaur goizean, Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesio Sailaren gaineko saioagaz. 44 zuzenketa-eske partzial landu dira, eta Foru Gobernuaren eusten daben taldeen ekimenez aurkeztutako bat izan da onetsi dan bakarria.

Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek aurkeztu daben zuzenketa-eskeak 50.000 euro gehiagoko zuzkidurea proponiduten dau, Bizkaiko Garraio Partzuergoak lurraldeko garraioaren egituraketaren gaineko azterlanetan aurrera egin daian. Bozketak EH Bilduren eta Talde Mistoaren aldeko botoak izan ditu, eta Podemos Bizkaia eta Talde Popularra abstenidu egin dira.

Botoaren azalpenean, Jesús Isasi bozeroale popularrak esan dauenez, bere abstentzinoa, gauzatu beharreko jarduketan inguruan azalpenik ez egoteak eragin dau. Zigor Isuskiza EH Bilduko ordezkariaren berbetan, "bitxia" da 50.000 euroko partida gehigarria kreditu orokorretik kentzen den zenbateko bera izatea.

Gaur goizeko saioan eztabaidatu diren gainerako zuzenketa-eskeak ez dira onartu, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeen kontrako bederatzi botoakaz. Holan, eta datorren abenduaren 28an Gernikan egingo dan Osokoa gauzatuko dan behin betiko bozketaren faltan, Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesio Sailak ia 134 milioi euroko aurrekontu partidea eukiko dau. 2017koa baino %10 txikiagoa dan kopuru hori, Bizkaiko Foru Aldundiko sailen gastu orokorraren %11koa da.

Oposizionoko talde guztiek datorren eguenean, abenduaren 28an, egingo dan Osokorako erreserbau ditue gaur onetsi ez diran euren zuzenketa-eskeak.

NOTA DE PRENSA

19/12/17

Las Juntas Generales aprueban una única enmienda en el presupuesto del área de Transportes por valor de 50.000 euros

Esta mañana las Junta Generales de Bizkaia han dado comienzo a la segunda jornada de debate de Presupuestos Generales del Territorio Histórico para el año 2018 con una sesión dedicada al Departamento de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio. Se han debatido un total de



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

44 enmiendas parciales, de las cuales solo una, a iniciativa de los grupos que apoyan al Gobierno Foral, ha sido aprobada.

La enmienda presentada por Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos hace referencia a una dotación adicional de 50.000 euros para que el Consorcio de Transportes de Bizkaia avance en los estudios sobre la vertebración del transporte en el territorio. La votación ha contado con el apoyo de EH Bildu y Grupo Mixto, y la abstención de Podemos Bizkaia y Grupo Popular.

En la explicación de voto, el portavoz popular, Jesús Isasi, ha argumentado su abstención en la falta de explicación sobre las actuaciones a llevar a cabo, mientras que el representante de EH Bildu, Zigor Isuskiza, ha calificado como “curioso” que la partida adicional de 50.000 euros se detraiga del crédito global.

El resto de enmiendas debatidas esta mañana han sido rechazadas con los nueve votos que suman los grupos junteros Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos. De esta forma, y a falta de la votación definitiva en el Pleno que se celebrará en Gernika el próximo 28 de diciembre, el Departamento de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio contaría en 2018 con una partida presupuestaria de casi 134 millones de euros. Este montante, un 10% menos que en 2017, representa un 11% sobre el gasto del conjunto de los departamentos de la Diputación Foral de Bizkaia.

Todos los grupos junteros de la oposición se han reservado sus enmiendas, hoy rechazadas, para el Pleno que se celebrará el próximo jueves 28.